

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA
BERRIKUNTZARAKO EUSKAL
KONTSEILUAREN
AKTA**

**LEHENDAKARITZA, 2014KO ABENDUAREN
15A**

BERTARATU DIRENAK

Arantza Tapia andrea
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNEN SAILBURUA

Ricardo Gatzagaetxebarria jauna
OGASUN ETA FINANTZA SAILBURUA

Cristina Uriarte andrea
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURAKO SAILBURUA

Jon Darpon jauna
OSASUNEN SAILBURUA

José Luis Bilbao jauna
BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA

Martin Garitano jauna
GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Javier De Andres jauna
ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

Iñaki Goirizelaia jauna
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Roberto San Salvador jauna, José M^a Gibert-en ordezkaria
DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREORDEA

Josu Zabala jauna
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Fernando Cossío jauna
IKERBASQUE-KO PRESIDENTEA

Txema Villate jauna, Alberto Garcia Erauzkin-en ordezkaria
INNOBASQUE-KO ZUZENDARI NAGUSIA

Javier Ormazabal jauna
TECNALIA-ko PRESIDENTEA

Jose Miguel Erdozain jauna, Jesús M^a Iriondo-ren ordezkaria
IK4-ko ZUZENDARI NAGUSIA

Jesús M^a Ugalde jauna (ezin da etorri)
JAKIUNDE-ko PRESIDENTEA

José Luis San Pedro jauna
IBERDROLA-ko PRESIDENTEORDEA

Andrés Arizkorreta jauna
CAF-eko KONTSEILARI ORDEZKARIA

Antón Pradera jauna
CIE AUTOMOTIVE-ko PRESIDENTEA

Fernando Querejeta jauna
IDOM-eko PRESIDENTEA

Jesús Peña jauna
LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA

GAI-ZERRENDA

- I. Kontseiluak 2014ko apirilaren 9an egindako bileraren akta onestea
- II. Txostena eta Euskadi 2020 ZTBP onestea
- III. Eskaerak eta galderak

I) Kontseiluak 2014ko apirilaren 9an egindako bileraren akta onestea

Erabakia:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak 2014ko apirilaren 9an egindako azken bileraren akta onetsi du, inolako oharrik gabe.

II) Txostena eta Euskadi 2020 ZTBP onestea.

Lehendakariaren txostena

Lehendakariak Euskadi 2020 ZTBP egiteko prozesua eta planaren edukia azaldu ditu. Bere azalpena hasteko, eskerrak eman ditu Lehendakariak koordinaturik eta Innobasque-k idazkaritza tekniko gisa emandako laguntzarekin plana egiten eta alderatzen parte hartu duten pertsona guztien lanarengatik eta ekarpenengatik. Nabarmendu duenez, Kontseiluko kideei igorri zaien behin betiko agiria egiteko oinarri gisa hartu dira “Euskadiko RIS3 espezializazio adimentsua” txostena eta “ZTBP berriaren oinarritzko ildo estrategiko eta ekonomikoen agiria”; hain zuzen ere, horiek biak Kontseiluak iragan apirilaren 9an egindako bileran onetsi ziren, aktan ageri denez.

Azken agiria, egindako ekarpen batzuen eta besteen arteko adostasunaren emaitza izan da. Europako Batzordearen hainbat Zuzendaritza Nagusiren alderaketa eta aldeko balorazioa ere jaso ditu.

Lehendakariak ZTBPrek edukiaren laburpen-txostena irakurtzeari ekin dio.

Txosten horretan, honako alderdi hauek nabarmentzen dira bereziki:

- 1) *Euskadi 2020 ZTBP onestea gertakari bereziki nabarmena da legegintzaldi honetan, bi arrazoirengatik:*
 - A) ZTBP funtsezko elementua da giza garapen iraunkorraren estrategian, garapen adimentsuan ere bai, Europako Batasunak aldarrikatzen duenez.
 - B) Legegintzaldiaren inflexio-puntuarekin bat dator ZTBPrek onespena, bai denbora aldetik -bi urte bete dira-, bai ekonomiaren eta enpleguaren ikuspegitik.

2) *“Iraganaren eta geroaren arteko mugari diren Euskadi 2020 ZTBPren alderdi nabarmenak”*

Lehendakariak ZTBP berriaren alderdi nabarmenen artean Euskadiko politika zientifiko eta teknologikoan iraganaren eta geroaren arteko mugari direnak aipatu ditu.

Hasteko, lehenbiziko aldiz definitu da espezializazio adimentsuko estrategia bat Europako RIS3 ereduari jarraikiz. Estrategia horrek Euskadiren lehiakortasuneko indarguneak hiru arlotan fokalizatzen ditu; hona hemen arlo horiek: Energia; fabrikazio aurreratua eta Biozientziak/Osasuna binomioa. Gainera, “aukera-eremu” diren beste lau jardura aipatu dira.

Bigarren, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea berrantolatu da, efikazagoa izan dadin. Hala, eragileen kategoria kopurua sinplifikatu da, kategoria horiek homogeneizatu dira, eta finantzatzeko eta emaitzak ebaluatzeko irizpide komunak ezarri dira, kategoria bakoitzerako.

Hirugarren, Lehendakariak planaren ekonomia alderdia nabarmendu du. Aurreikusi den egoera ekonomikoaren arabera, 2014-2020 epealdian I+G+b-ko inbertsioa, guztira, 11.100 milioi eurokoa izango da, arlo publikoaren eta pribatuaren artean sekula ikusi gabeko elkarlan-ahalegin batean.

Egoera ekonomiko hori irizpide errealista eta aurreikusteko modukoekin taxutu da, eta abiapuntu gisa honako hiru elementu hauek hartu dira:

- Euskal administrazio publikoen konpromisoa, ahalegin koordinatu eta egonkorrekin.
- Enpresa-sarearen inplikazio handiagoa, Europarekin bat eginez.
- Europako eta nazioarteko funtsak lortzeko ahalegin handiagoa.

Azkenik, Lehendakariak Euskadi 2020 ZTBP bera **egiteko prozesuaren** bi ezaugarri azaldu ditu: *Izaera irekia du eta parte-hartzea sustatzen du.*

Plana prestatzen diziplinarteko lantalde egonkor batek hartu du parte. Lantalde horrek hamabi bilera egin ditu gutxi gorabehera.

Osagarri gisa, Aholkularitza Batzorde Zientifikoko hamar kideen iritzia eta ekarpenak baliatu dira.

Halaber, Europako adituekin alderatu da, adibidez Kevin Morganekin eta Karen Mcguirerekin. Europako Batzordeko hiru zuzendaritzatan ere aurkeztu da, eta zuzendaritza horiek balorazio positiboa egin dute.

Azkenik, Zientzia eta Teknologiarako Euskal Kontseiluko kideen beraien ekarpenak txertatu dira, azken emaitzara heldu arte.

Bere azalpena osatzeko, Lehendakariak “Euskadi 2020 ZTBP”ren ebaluazio eta gobernantzarako erreferentzia izango diren emaitzen adierazle nagusiak azaldu ditu.

Jarraian, Kontseiluko kide batzuek hitza hartu dute. Kide horiek egiaztatu dutenez, agiria orekatua da, eta planaren prestaketaren ezaugarri izan den gogo konstruktiboa ageri du; gainera, egindako ekarpen batzuk eta besteak behar bezala jasotzen ditu. Onartu dute, halaber, agiria abiapuntua dela, eta konpromiso zorrotzak barnean hartu arren konpromiso horiek bete ahal direla.

Laburbilduta, konpartitutako iritzia Euskadi 2020 ZTBPre aldekoa da, eta Kontseiluko kide bat ere ez da aurka agertu.

Erabakia.

Lehendakariaren azalpenaren ostean, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak Euskadi 2020 ZTBPre aldeko txostena egitea erabaki du. Euskadi 2020 ZTBP Jaurlaritzaren Kontseiluan onetsiko da, eta gero Eusko Legebiltzarrari igorriko zaio.

III) Eskakerak eta galderak.

Ez da izan ez galderarik, ez eskaerarik.

Jesús Peña Martínez

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA